sociedad de ciencias . society of sciences . société de sciences

www.aranzadi-zientziak.org

Zorroagaina, 11
20014 Donostia-San Sebastián
Tel.: 943 46 61 42
Faxa: 943 45 58 11
idazkaritza@aranzadi-zientziak.org

MEHERIS. Itxaropen posiblea. Hobi komunak eta desagertutako lehenengo saharar identifikatuak
Laburpena

Egilea: Carlos Martín Beristain, Francisco Etxeberria Gabilondo

Itzulpena: Gipuzkoako Foru Aldundia

Azaleko ilustrazioa: Alonso Gil

Inprimatzea: Lankopi, S.A.

Diseinua eta maketazioa: Marra, S.L.

Lehenengo edizioa: 2013ko iraila

Lege-gordailua: BI-1194-2013

ISBN: 978-84-89916-85-2

Proiektuaren finantzatzailea:



Aieteko Jauregia
Aiete Pasealekua, 65-2
20009 Donostia-San Sebastián
www.euskalfondoa.org

Argitalpen hau Euskal Fondoarekin sinatutako eta
“Oroimenaren Oasia: oroimen historikoa eta giza
eskubideen urraketak Mendebaldeko Saharan”
txostenean oinarritutako Eragerinako Estrategia
izeneko hitzarmenaren emaitza da.



Except where otherwise noted, this work is licensed under
<http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/>

Dokumentu honek Creative Commons lizentzia dauka: Aitorpena-EzKomertziala-EratorritakoObrarikGabea 3.0
Espainia. Askatasun osoz kopia, banatu eta publikoki jakinaraz daiteke, baldin eta egilezta aitortzen bada eta
helburu komertzialetarako erabiltzen ez bada. Ezin da lan honetatik eratorritako obrarik aldatu, eraldatu edo sortu.

Izugarri mindu nauen gauza bat, eta oraindik orbaindu ez den zauri bat utzi didana, nire aitaren errugabetasun erabatekoa da. Ez zen militarra, eta ez zen inongo talde politikoko kidea, aitzitik, herritar zibila zen, bere eguneroko bizitza egiten zuena, gainerakoek egiten zuten bezala. Mahyub Mohamed-Mulud Mohamed Lamin Maimun.

Hainbeste urtetan zain egon eta gero, egun historikoa dugu gaurkoa, zuen laguntzari esker gorpuak hobitik atera ahal izan ditugulako. Han aurkitu diren frogen arabera, ziurrena gure aitaren gorpua da, bere NAN gorpuaren gainean aurkitu dute eta. Hori eta bere heriotzan indarkeria erabili zela egiaztatzea Marokok esan dituen eta familiei kalte handia egin dieten gezurren frogak dira. Mohamed Fadel Abdalahe Ramdan.

Aurkezpena

Agiri honetan jaso ditugu desagertutako saharar batzuen kasuan Euskal Herriko Unibertsitateko ikertzaile eta auzitegiko mediku talde batek zein genetikako laborategiak egindako aurkikuntzak. Pertsona horiek Fadret Leguiaa izeneko lekuan desagertu ziren, Smara eskualdean, Amgala eta Mehiris lekuetatik hurbil, 1976ko otsailean. Aurkikuntza ikerketa zabal baten emaitza da, eta horren hasiera Mendebaldeko Saharan giza eskubideak urratzearen arazo orokorreari buruzko azterlan bat izan zen, Euskal Herriko Unibertsitateko Hegoa Institutuak “*El Oasis de la Memoria: Memoria histórica y violaciones de Derechos Humanos en el Sáhara Occidental*”¹ izenburuz 2012an argitaratu zuena eta jarraipena izan duena garai hartan atxilotutako eta desagertutako pertsonen kasu batzuen ikerketan.

Gatazka armatuan desagertutako pertsonen eta saharar herritar zibilen aurkako indarkeriaren arazoak ahaztu gabe mantendu egiten dira haien familien bizitzan, desagertutakoaren egonlekuaren inguruko ziurgabetasunaz eta zauri gordin iraunkorraz bizi direlako. Desagertutakoaren egonlekuari buruzko informazio garrantzitsu eta egiazkoa emateari uko egitea familiei egiten zaien tratatu txarraren eta osotasunaren kontrako atentatuaren zati bat da, eta nazioarteko auzitegien arabera torturatzeko

¹ Martín Beristain C., y González E. *El Oasis de la Memoria: Memoria histórica y violaciones de Derechos Humanos en el Sáhara Occidental*. I. eta II. liburukiak, 1.200 orrialde. Hegoa. Bilbo, 2012. <http://publicaciones.hegoa.ehu.es/publications/281>

modu bat da². Kontuan izan behar da era sistematikoan eta orokorrean indarrez desagerraraztea *gizateriaren aurkako* krimenezat jotzen dela³. Zuzenbidearen ikuspegitik, desagertze behartua delitu iraunkorra da egitateak ikertu, egokia bada deshobiratzeak eta bilaketa eraginkorreko prozesuak burutu, eta gorpuzkiak senideei itzuli bitartean, familien eskakizunak bete ahal izateko beren eskubideak kontuan hartuta, bereziki egia ezagutzeko eta dolua adierazteko eskubideak, justizia eta kaltearen konponketaz gain. Gainera, desagertze behartua hainbat giza eskubideren urraketa anizkuna da⁴, eta “desagertze behartuen debekua eta horiek ikertzeko eta horien erantzuleak zigortzeko betebeharra *jus cogens* izaerako bihurtu dira”⁵.

Senideen eskaera eta deshobiratzeko prozesua

Euskal Herriko Unibertsitateko ikertzaile eta auzitegiko mediku talde batek AFAPREDESA Preso eta Desagertu sahararren Senideen Elkartearen eskaera bat jaso zuen 2013ko apirillean, Mendebaldeko Saharako zona batean ikerketa bat egin zezan, bertan saharar biktimen gorpuzkiak zeudelako susmoa baitzuten. 2013ko ekainaren 8an, 9an eta 10ean, Euskal Herriko Unibertsitateko, Aranzadi Fundazioko eta Hegoa Institutuko profesional talde batek, zenbait senide eta AFAPREDESAko kidek lagunduta, leku bat bisitatu zuen Fadret Leguiaa inguruan, Smara eskualdean, basamortu gorrian, Tindufeko errefuxiatuen kanpamenduetatik 400 km-tara. Helburua AFAPREDESAren eskaerari erantzutea zen, hau da, lanbide-prestakuntza eta esperientzia goreneko profesional talde batek itxuraz hobi komunak zeuden leku bat identifikatu eta arakatzea, bertan ustez lurperatuta baitzeuden pertsona batzuk, ordura arte desagertutat jo zirenak.

² Printzipio hori jasota dago *Derrigorreko desagertzearen aurka pertsona guztiak babesteko Nazioarteko Konbentzioa* agiriaren 24. artikuluko 1. paragrafoan (2007, Marokok berretsia, 2013ko maiatzaren 14an), eta behin eta berriro onartuta dago erakunde hauen jurisprudentzian: Giza Eskubideen Amerika Arteko Gortea (ikus, besteak beste, kasu hau: *González Medina eta senideak v. Dominikar Errepublika*, 2012ko otsailaren 27ko epaia, 270-275 paragrafoa); Giza Eskubideen Europako Gortea (besteak beste, *Er eta beste v. Turkia* kasua, 2012ko uztailaren 31ko epaia, 94-97 paragrafoa); eta Giza Eskubideen Nazio Batuetako Gortea (besteak beste, *Guezout eta Rakik v. Aljeria* kasua, 2012ko uztailaren 19ko oharra, 8.6. paragrafoa).

³ Nazioarteko Zigor Gortearen Erromako Estatutuaren 7. artikulua, 1.f) idatzi-zatia; eta *Derrigorreko desagertzearen aurka pertsona guztiak babesteko Nazioarteko Konbentzioaren* 5. artikulua. Indarrez desagerraraztea debekatuta dago, halaber, ohiturazko nazioarteko giza zuzenbidearen arabera (98. araua).

⁴ Ikus, besteak beste, Giza Eskubideen Batzordea, *31 zenbakiko Ohar Orokorra, 2004ko martxoaren 29koa, Ituna sinatu duten estatuei ezarritako betebeharr juridiko orokorraren izaera*, 18. paragrafoa. Ildo berean, Desagertze Behartu edo Nahi Gabekoei buruzko Lantaldea (GTDFI), *Informe anual para 1982*, dok. E/CN.4/1983/14, 1983ko urtarrilaren 24koa, 131. paragrafoa. Halaber, Torturaren aurkako Kontalaria, *Informe interino para 2011*, dok. A/56/156, 2011ko uztailaren 3koa, 14. Paragrafoa (ikus, orokorrean, 6-16 paragrafoak).

⁵ Giza Eskubideen Amerika Arteko Gortea, *Goiburú eta beste v. Paraguay* kasua, 2006ko irailaren 22ko epaia, Ser. C, 153 zk., 80. paragrafoa.

Txosten hau laburpen bat da, eta bertan jasota daude aipatutako ikerketaren ondorioak⁶. Ikerketa elementu hauek osatuta dago: 1) lekuko eta senideen testigantzak jasotzea eta kasu kolektiboaren eraikuntza, egitateak, senideengan izandako eraginak eta senideen eskaerak barne; 2) deshobiratzeko prozesua, hobien ezaugarriak, gorpuzkien hezurren analisia egiteko prozedura estandarizatuak burutzea, eta azterketa genetikoak egiteko laginak hartzea; 3) argazki bidezko azterlan bat eta bideo-dokumental bat egitea, prozesu osoa jasotzeko; 4) UPV/EHU Euskal Herriko Unibertsitateko BIOMICs taldearen genetikako laborategiak ADN azterketa egitea.

Ikerketan zehaztu ahal izan da hobi horietan zeuden desagertu guztien identitatea; pertsona horiek auzibidetik kanpo exekutatu zituzten marokoar armadako kideek, 1976ko otsailean.

Zona horretan MINURSOk ikuskatzen du alderdiek 1991n sinatu zuten su-etena; hori dela-eta, gorpuzkiak ondo babestuta eta seinaleztatuta utzi ziren aurkitu ziren lekuan, laster egiaztapen ofizialeko misio bat burutu eta horren bukaeran senideei gorpuzkiak emateko eta, halaber, zonan dauden beste hobi batzuk babesteko neurriak hartzeko.

Kasu honetan identifikatu diren pertsonen senide zuzenak Tindufeko errefuxiatuen kanpamenduetan daude, desagertutako pertsonen senide asko bezala. Bien bitartean, beste senide batzuk Marokok okupatuta daukan Mendebaldeko Saharan daude. Egokiak diren agintariek bi alderdietatik biktimak diren pertsona horiek guztien eskubideak babestu behar dituzte, Nazio Batuen ikuskaritzapean.

Desagertze behartua Mendebaldeko Saharan

Gaur egun, indarrez desagerrarazitako 400 biktima saharar baino gehiago daude. Era berean, saharar asko desagertu dira, Marokoko hegazkinek 1976an Um Dreiga, Guelta o Tifariti herrietan egindako bonbardaketen ondorioz. Desagertze horien % 80 inguru lurraldearen okupazio militarren lehenengo urteetan gertatu ziren, batez ere 1975 eta 1977 urteen artean, hori izan baitzen zapalkuntza marokorren funtsezko *modus operandi*.

Biktima horietatik 207ren patuari eta egonlekuari dagokienez, Marokok erantzun zatikatua, mugatua eta partziala eman zuen Giza Eskubideen Kontsulta Kontseiluaren txostenean (interneten argitaratu zen, 2010eko abenduan). Bertan, kasu gehienei buruz adierazten da “egoeraren ondorioz hil zirela” edo “atxilotuta egon zirenean”, xehetasun gehiagorik gabe eta azkeneko egonlekuari buruzko

⁶ Txosten horren bertsio oso bat (gaztelaniaz).

Ikus <http://publicaciones.hegoa.ehu.es/publications/28>

informaziorik gabe. Txosten berean, desagertuen 114 kasu gehiago daudela onartu da, haien identifikazioa eman gabe.

MINURSOren agindua

Fadret Leguiaan (Smara eskualdea, Amgalatik hurbil) aurkitutako hobiak kokatuta dauden Meherisetik hurbileko zonaren zati bat da, eta 1991z geroztik MINURSOk su-etena ikuskatzen du bertan⁷. MINURSOk bete beharreko aginduetako bat alderdiekin batera neurriak hartzea da, Mendebaldeko Saharako preso politiko guztien edo atxilotutako guztien askapena ziurtatzeko, eta gerrako presoek trukea gainbegiratzeko (Gurutze Gorriaren Nazioarteko Batzordearekin lankidetzan). Era berean, Segurtasun Kontseiluak 2013ko apirilaren 25ean MINURSOren agindua 2014ko apirilaren 30 arte luzatzeko emandako ebazpenean (2099 zenbakikoa) nabarmentzen da *“Mendebaldeko Saharan eta Tindufeko kanpamenduetan giza eskubideen egoera hobetzeko garrantzia, eta alderdiak adoretu nahi dira nazioarteko komunitatearekin lankidetzan ari daitezzen, neurri independente eta sinisgarriak formulatu eta ezartzeko eta, era horretan, giza eskubideen erabateko errespetua ziurtatzeko, nazioarteko zuzenbideari jarraituz bete beharreko betebeharrak egokiak kontuan hartuta”*. Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluaren ebazpen berean, alderdiei adore ematen zaie *“Mendebaldeko Saharan eta Tindufeko errefuxiatuen kanpamenduetan giza eskubideak sustatu eta babesteko egiten dituzten ahaleginekin jarrai dezaten”*.

Nazio Batuen Desagertze Behartuei buruzko Lantaldearen gomendioak

Desagertze behartuen aurkako Nazio Batuen Lantaldeak Marokora bisita egin zuen, eta horri buruzko txostena idatzi zuen 2010ean⁸. Txosten horretan, desagertze behartuaren gaineko azterketa jaso da, eta zehazten da nola Marokoko agintariek erabili duten desagertze hori; era berean, hainbat aipamen egiten dira Mendebaldeko Saharako desagertzeen izaera sistematikoari eta egitateen zigorgabetasun-egoerari buruz. Desagertze Behartuei buruzko Lantaldeak berriaz aditzera eman zuen ez dela nahikoa hobi komunak badaudela esatea, horrez gain Estatuak gorpuak hobitik ateratzeko eta horiek nazioarteko estandarren arabera identifikatzeko betebeharra

⁷ Ikus 690 Ebazpena, Segurtasun Kontseiluarena, 1991ko apirilaren 29koa.

⁸ Dok. A/HRC/13/31/Add.1, 2010eko otsailaren 9koa (38., 45. eta 53. paragr.).

baitauka, ADN laginak hartzea barne⁹. Desagertze Behartuei buruzko Lantaldeak Marokori gomendatu zion auzitegiko mediku independenteengana jotzea¹⁰.

Deshobiratzeei eta gorpuzkiak identifikatzeari buruzko nazioarteko estandarrak

Nazioarteko estandarrek aditzera ematen dute estatuen bermatzeko betebeharraren zati bat dela seriotasunez, profesionaltasunez eta eskura dituzten baliabide guztiak erabilita ikertzea giza eskubideen zapalkuntzak, eta betebeharrak hori Marokoko Estatuak ez ezik, Espainiako Estatuak berak ere bete behar duela, desagertutako saharar asko hiritar espainiarrak zirelako¹¹.

2010eko martxoan Giza Eskubideen Kontseiluaren Aholku Batzordea desagertutako pertsonen lotuta burutu beharreko jardunbide hoberenei buruz egiten ari zen lanen egoerari buruz egiten txostenean¹², IX. atal osoa erabili zen *“hildakoen tratua eta giza gorpuzkien identifikazioa”* gaia aztertzeko. Bertan adierazita daude betebeharrak, atal hauetan laburbil daitezkeenak: a) bilaketa eta babesa, b) harremana senideekin, c) biktimen eta senideen eskubideak, d) auzitegiko medikuen lanaren eskumena eta independentzia. Giza eskubideen urratze larrien kasuetan deshobiratzei eta gorpuzkiak identifikatzeari buruzko nazioarteko hitzarmenak eta beste estandar batzuk, eta baita horiei lotuta dauden beste betebeharrak ere, hurrengo taulan laburbilduta daude:

⁹ Gorpuzkiak deshobiratu, identifikatu eta itzultzearen inguruko nazioarteko estandar eta betebeharrak dagokienez, ikus, besteak beste, Giza Eskubideen Kontseiluaren Aholku Batzordea desagertutako pertsonen lotuta burutu beharreko jardunbide hoberenei buruz egiten ari zen lanen egoerari buruzko txostena (A/HRC/14/42, 2010eko martxoaren 22koa); Giza Eskubideen Aholku Batzordeak desagertutako pertsonen lotuta burutu beharreko jardunbide hoberenei buruzko txostena argitaratu du (dok. A/HRC/AC/6/2, 2010eko abenduaren 22koa); eta *Derrigorrezko desagertzearen aurka pertsona guztiak babesteko Nazioarteko Konbentzioa* agiriaren 24. artikulua, 3. idazki-zatia, bertan ezartzen baita Estatu bakoitzak “egokiak diren neurri guztiak hartuko dituela desagertutako pertsonak bilatu, aurkitu eta askatzeko, eta, hilda badaude, haien gorpuzkiak bilatu, errespetatu eta itzultzeko”.

¹⁰ Desagertze Behartuei buruzko Lantaldeak gomendio horiek berretsi ditu duela gutxi, Marokora egindako bisitari buruzko txostenean jasotako gomendioen segimenduaren gaineko txostenean (dok. A/HRC/45/Add.3, 2013ko martxoaren 1ekoa, 26. eta 29. paragrafoak).

¹¹ *Derrigorrezko desagertzearen aurka pertsona guztiak babesteko Nazioarteko Konbentzioa* agiriaren 15. artikuluan zehazten da Estatuak “lankidetzan arituko direla elkarrekin, eta ahalik eta laguntza handiena emango diotela elkarri, indarrez desagerrarazitako biktimak sorosteko nahiz desagertutako pertsonak bilatu, aurkitu eta askatzeko, eta, hilda badaude, haien gorpuzkiak bilatu, errespetatu eta itzultzeko”.

¹² Dok. A/HRC/14/42, 2010eko martxoaren 22koa. Agiri horren osagarria desagertutako pertsonen lotuta burutu beharreko jardunbide hoberenei buruzko txostena da, Giza Eskubideen Aholku Batzordeak 2010eko abenduan emandakoa: dok. A/HRC/AC/6/2, 2010eko abenduaren 22koa (ingelesez soilik eskuragarria).

Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioa

- Kanpainan dabiltzan Indar Armatuetao Zaurituen eta Gaixoen Egoera Arintzeko Genevako I. Hitzarmena (1949). 17. artikulua – Hildakoei buruzko aginduak. Hilo-bi-zerbitzua.
- Itsasoan dabiltzan Indar Armatuetao Zaurituen, Gaixoen eta Naufragoen Egoera Arintzeko Genevako II. Hitzarmena, 1949. 20. artikulua – Hildakoei buruzko aginduak. 121. artikulua – Egoera berezietan hildako edo zauritutako presoak.
- 1949ko Genevako Hitzarmenen I. Protokolo Gehigarria, Nazioarteko Gatazka Armaturen Biktimak Babesteari buruzkoa, 1977. 33. artikulua – Desagertuak. 34. artikulua – Hildakoen gorpuzkiak.
- 1949ko Genevako Hitzarmenen Protokolo Gehigarria, Nazioartekoak ez diren Gatazka Armaturen Biktimak Babesteari buruzkoa, 1977. 8. artikulua – Bilaketa.

Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidea.

- Pertsona Guztiak Desagertze Bortxatuetatik Babesteko Nazioarteko Konbentzioa
- Kaltearen konponketei buruzko Nazio Batuen printzipioak, hala nola, zigorgabetasunaren aurkako Nazio Batuen Printzipioak.
- Legez kanpoko exekuzioak, arbitrarioak edo sumarioak eraginkortasunez prebenitzeko eta ikertzeko Nazio Batuen printzipioak (Ekonomia eta Gizarte Kontseiluak 1989ko maiatzaren 24ko 1989/65 Ebazpenean gomendatuak).
- Legez kanpoko exekuzioak, arbitrarioak eta sumarioak eraginkortasunez prebenitzeko eta ikertzeko Nazio Batuen eskuliburua (dok. E/ST/CSDHA/, 1991eko 12koa).
- Tortura eta krudelak, ankerrak edo umiliagarriak diren beste tratu edo zigor batzuei buruzko ikerketa eta dokumentazio eraginkorrei buruzko printzipioak (Batzar Nagusiak onartuak, 2000ko abenduaren 4ko 55/89 Ebazpena).

Kasuaren laburpena

Otsailaren 12ko arratsean, Amgala aldean zabaldua zeuden Marokoko indar militarrek hainbat beduino atxilotu zituzten. Gertakizunen lekuan zeuden senideetako batzuk atxilotze kolektibo horren lekukoak izan ziren. Kasua berregiteko, desagertutako zortzi pertsonaren hamabost senideri elkarrizketa egin zitzairen; horien artean, atxiloketen lekuko izan ziren batzuk zuzenean, atxilotu eta gero askatuak izan ziren beste batzuk, edo ihes egitea lortu zuten zenbaitek. Zuzeneko lekuko batek, Aba Ali Said Dafek, garai hartan 13 urte zituenak, adierazi zuen berarekin batera bi gizonetako beduino heldu ere atxilotu zituztela, bere bizilagun eta ezagunak zirenak, Mohamed Mulud Mohamed Lamin eta Abdelahe Ramdan, eta bere begien aurrean exekutatuak izan zirela eta gero era partzialean lurperatuak.

Une hartan, esan dizudan bezala, arratsaldeko 8ak inguruan, gizon bat iritsi zen Jeep batean. Mohamed Muludi hots egin zion lehendabizi, hau galdetu zion: Non daude Polisariokoak? Hori izan zen egin zion lehenengo galdera, egin zion bigarren galdera: “Eman zure identitate-txartela”. Mohamed Muludek ezeztatu zuen Polisario ezagutzen zuenik. Jarraian, zuzenean tiro egin zion, bihotz erdi-erdian. Gero Abdelahe Ramdani hots egin zion eta Muludi egindako galdera bera egin zion, eta modu berean tiro egin zion. Tiro egin zion gizonak pistola zeukan, baina tiro egiteko fusil bat hartu zuen. Aba Ali Said Daf.

Era berean, 14 bat urte zituen Bachir Salma Dafen atxilotetaren lekukoa izan zen, eta adierazi zuen Salma Daf Salec Bachir haren aitaren ahotsa entzun zuela, ez hiltzeko erreguka, baina ezin izan zuela ikusi. Pertsona horiek desagertuta jarraitzen zuten, eta beren patua eta egonlekua ziurtasunez zehaztu gabe zegoen. Nazioarteko taldeak lehenago egindako ikerketaren arabera, beste pertsona batzuk atxilotuak izan ziren egun eta leku berean, eta orduz geroztik zeuden desagertuta: Sidi Salec (adingabea), Sidahmed Segri Yumani, Salma Mohamed Sidahmed, Salama Mohamed-Ali Sidahmed. Leku horretan, guztira, ustez 8 eta 9 pertsona bitartean zeuden, ordura arte desagertuta zeudenak.

Atxilotetak Amgalako putzutik hurbil gertatu ziren; beduinoak bertara joaten ziren ganaduarentzako ur bila. Senide batzuk gertatutakoari eta familiakoen atxilotetari buruzko nolabaiteko informazioa izan zuten egitateak gertatu eta gutxira, lekuko nagusiak emanda. Informazio partzial hori ez da orain arte egiaztatu, eta agintari marokoarrek ez zuten informazio sinesgarririk eman pertsona horien patua eta egonlekuari buruz. 1976ko otsailean Amgalan desagertutako kasuaren ezaugarria da *modus operandi* bera dela, leku berean gertatu eta indar militar marokoarrek egin zela, desagertu guztiak beduinoak zirela, eskualdean artzaintzan aritzen zirenak, egitateak gertatzean zona berean zeudela eta beren atxiloteten lekuko zuzenak zeudela. Marokoko operatibo militarrek soldadu eta ibilgailu ugari mobilizatu zituen, une hartan biztanleria zibila soilik zegoen unean, hau da, eskualdean bizi ziren beduino taldeak. Ez dago daturik, egun hartan borrokarik egin zela adierazten duenik, edo Polisarioko indar militarrek zeudenik, egun batzuk geroago arte.

Egitateen ondorioz, desagertutako senideek exodoari ekin zioten, lehendabizi Mendebaldeko Saharako beste zona batzuetara, eta gero Tinduferra (400 km), Aljerian. Ihesa oso baldintza negatiboetan egin zen, eta bidean hainbat haur hil ziren.

Informaziorik eza, eta egiarekin bat ez datozen ikerketak eta erantzunak

Hiru hamarkadatan baino gehiagotan desagertuak biltzeko aukerak egon baziren ere, guztiz mugatuak izan ziren, eta Marokoko Estatuak ez zuen inolako erantzun ofizialik eman. Nahasmendutik edo ziurgabetasunetik irteten lagun zezakeen erantzunik ez. Ekitaterako eta Adiskidetzeko Erakundeak (IER, 2006) ez du kasu honi buruzko informaziorik ematen. Erakunde horretako inongo kide ez zen Tindufeko kanpamenduetan dauden biktima horien senide zuzenekin elkarrizketatu. Goian aipatutako Marokoko Giza Eskubideen Kontsulta Kontseiluaren zerrendak, 2010ean interneten argitaratuak, datu batzuk eskaintzen ditu Fadret Leguiaako hobien kasu honetan aztertu diren zortzi atxilotu desagertuetatik lauri buruz. Gainerakoei buruz ez du informaziorik eman, nahiz eta egun eta leku berean atxilotuak izan.

Zerrenda horretan¹³, lau kasuei buruz adierazten zen leku horretan, Amgalan, atxilotuak izan zirela eta Smarako kuarterera eraman zituztela, eta bertan hil zirela atxilotuta zeuden bitartean. Salma Daf Sidi Salei buruz adierazten da *errege-armadak atxilotu zuela 1976ko ekainean, Smaran, baseetako batera eraman zutela eta bertan hil zela*. Gauza bera adierazten da bere seme Bachir Salma Daf 14 urteko mutikoari buruz. Salama Mohamed-Ali Sidamedi buruz adierazten da *1976ko uztailan atxilotua izan zela, eta atxilotuta zegoela hil zela, egun zehatzik adierazi gabe*. Azkenik, adierazten da Abdelahé Ramdam *armadak atxilotua izan zela 1976/02/22an, Amgalan, Smarako base militarra eraman zutela, eta bertan hil zela, egun zehatzik adierazi gabe*.

Informazio hori osatugabea eta lausoa izan eta gutxienerako nazioarteko estandarrei erantzunik ez emateaz gain, ikerketa honen argira, gezurrezkoa ere bada. Datak zein egitateak erabat gezurtatu dira egindako ikerketaren ondorioz. Atxilotetak kolektiboak izan ziren, eta egun berean gertatu ziren. 1976ko otsailaren 12an eta 13an gertatu zen dena. Atxilotuak ez zituzten inongo kuarterera eraman, aitzitik, berehala izan ziren exekutatuak lekuan bertan, atxilotuta eta babesik gabe zeuden bitartean. Horiek horrela, zalantzarik da Giza Eskubideen Kontsulta Kontseiluaren zerrendan jasotako informazioa. Modu berean exekutatuak izan ziren gainerako lau atxilotu desagertuei buruz Marokok ez zuen informaziorik eman, eta berez ez dira aurkitzen zerrenda ofizialetan. Hori horrela da, nahiz eta Sidi Salec haurren senideek Ekitaterako eta Adiskidetzeko Erakundearen aurrean 2003ko azaroaren 25ean eta 2004ko abenduaren 13an eskaera bat aurkeztu; eskaera horrek ez zuen jarraipenik izan, senideak Marokora edo okupatutako Mendebaldeko Saharara bertaratu behar zirelako eta ez zeuzkaten agiriak aurkeztu behar zituztelako: haientzat bete ezineko baldintzak.

¹³ Ekitaterako eta Adiskidetzeko Erakundearen gomendioen segimendu-txostenaren eranskinak argitaratuta daude helbide honetan: <http://www.ccdh.org.ma/spip.php?article4282&lang=es>. Ikus I. Eranskina: Indarrez desagerrarazitakoen kasuak (arabiarrez eskuragarri).

Ez dago kalte-ordain ekonomikorik jasan ditugun galerengatik, eta bereziki gure aita desagertzeagatik, eta horregatik ezinbestekoa da justizia egitea. Eta jakin behar dugu zer gertatu zen eta nola gertatu zen, egia ezagutu behar dugu, eta erantzuleak zigortuak izan behar dira. Zergatik egin zuten hori? Non dago orain? Hilda badago, non daude bere gorpuzkiak? Nazioarteko Zuzenbideak kasu mota hauetan esaten duen guztia bete behar da, eta kasu hauek nazioarteko jurisdikzio independenteren baten aurrean aurkeztu behar dira, hain krimen larriak baitira; zergatik ez Nazioarteko Zigor Gortean? Berez, denbora igaro ahala, betikotu egiten da urraketa, eta urreketa larriak egiten jarraitzen dute. Jueila Mustafa Yumani.

Hobien aurkikuntza

2013ko otsailaren bukaeran, Abderrahman Abaid Bay izeneko artzain batek aipatutako eremuko harean barreatutako giza gorpuzkiak aurkitu zituen. Hezurak urak mugituta zeuden, hondatuta zeuden eguzkiaren eraginez, eta sakabanatuta eremu zabal batean. Leku horretatik hurbil bazirudien beste lurperatze-toki bat zegoela.

2013ko ekainean nazioarteko taldeak egin zuen ikerketa ikusita, zitekeena zen zona hartan zortzi eta bederatzi pertsona bitartean egotea, eta pertsona horiek izenak senideek bere eman zizkioten ikertzaileei. Haien hitzen arabera, pertsona haiek, horietako batzuk haurrak, artzainak ziren, eta ganaduarentzako janari eta ur bila zebiltzan atxilotuak izan zirenean. Aba Ali Said Daf izeneko lekukoaren identitatea egiaztatu eta berretsi zuten hainbat senidek; haiek ziurtatu zuten egitateak gertatu zirenean, 1976an, 13 urte zituela eta gertatutakoaren berri eman ziela, baina artean ezinezkoa izan zitzaizela hori egiaztatzea.

Adierazitako guztia kontuan hartuta, lehenik eta behin profesional taldeak eremua miatu zuen, eta bi leku identifikatu zituen, hobiak izan zitezkeenak.

Hobietan egindako lanaren deskribapena

Hobietako batean, gorpuzkiak azalean zeuden eta barreatuta inguruan; bildu eta babestuak izan ziren kultura eta erlijio-ohitura musulmanei jarraituz, 2013ko otsailean aurkitu eta gero. Hondakin horiek aztertu egin ziren, bai hobiaren barruan zeudenak, bai hobitik kanpokoak, ondoan zegoen beste lurperatze-toki batean zeudenak (**1. Hobia**). Sei gizonezko zirela egiaztatu zen: bi azpiheldu, 12-15 urtekoak, adineko pertsona bat, eta gainerakoak helduak, su-armaz egindako lesio traumatikoak zituztenak. Era berean, hainbat objektu pertsonal aurkitu ziren, dokumentazioa eta jantziak.

Beste alde batetik, aurrekotik gertu zegoen beste hobi bat aurkitu zen; haren goialdean, erdi lurperatutako hezur bat zegoen, eskuineko femur zuri bat, eguzkiak erasanda zegoena. Hobi hori garbitu eta behatu zen, leku horiei dagozkien nazioarteko irizpide zientifiko eta teknikoekin zein prozeduren arabera, eta egiaztatu ahal izan zen bi gizonezko eskeleto heldu zeudela, su-armaz egindako lesio traumatikoak zituztenak. Leku horretan, objektu pertsonal batzuk, dokumentazioa eta jantziak aurkitu ziren eta auzitegiko zientzialariek jaso egin zituzten, egoki gorde eta senideek identifikatzea erraztearren. Arau egokiei jarraituz gorde ziren, zaintzeko katea ziurtatuz. Objektu horiei buruzko txosten bat eta zaintzeko katea eman zitzaizkien saharar agintariei, egokia den jakinarazpen nazionala eta nazioartekoa egiteko. Hobia aurkitu bezala utzi zen, gorpuzkiak mugitu gabe (**2. hobia**).

Bi hobietan, fusil motako su-armetan erabiltzen diren jaurtigaien zorroak aurkitu ziren. ADN laginak hartu ziren aurkitutako gorpuzkietatik, haien senideak izan zitezkeenei hartutako laginekin etorkizunean erkatzeko.

Horren guztiaren berri eman zitzaion saharar agintariei, adierazitako lekua babesteko, eta aditzera eman zitzaion zein garrantzitsua zen MINURSOri, Gurutze Gorriaren Nazioarteko Batzordeari eta giza eskubideak babesteko Nazio Batuen sistemako organo eskudunei horri buruzko informazioa ematea.

Prozesua osatu arte, eskatzen dugu zaintza egotea, lekua ziurtatzeko. Ez dakigu nola adierazi gure eskerrona, nire aitaren egonlekua aurkitzeagatik. Guretzat argi bat bezalakoa da, dena iluna izan delako. Gure erlijioan, senide baten hilobirik ez dagoenean eta bisitatzen joan ezin denean, ezin da dolurik egin. Nire aita hor dagoela egiaztatzen denean, hilobi bat egingo dugu, bisitan joateko eta gauzak eskatzeko, horrek benetan on egingo liguke. Sidi Mohamed Sidahmed Segri.

Ikerketaren ondorioak: kasu kolektiboa, heriotzaren kausa eta desagerrarazitako identifikazioa

Kasu honetan, testigantza-frogaren eta froga dokumentalaren azterketa nahiz auzitegiko azterketa antropologiko eta genetikoak guztiz bat datoz behean adierazitako emaitzekin. Ikerketa-taldeak honakoa ondorioztatu du:

1. Kasua Amgala-Mehiriseko hobietako zortzi pertsonari buruzkoa da, adin txikiko bi barne; su-armaz exekutatuak eta erabat estali gabe lurperatuak izan ziren Fadret Leguiaa aldean, Smara eskualdean, Amgalatik hurbil. Biktimak beduinoak ziren, gameluak eta ahuntzak zaintzetik bizi ziren artzainak. Auzibidetik kanpoko exekuzioak dira, 1976ko otsailaren 12an egitateak zuzenean ikusi zituen lekukoaren arabera. Hala ere, senideen susmoak gorabehera, egitateak gertatu eta egun batzuk geroago zuzeneko lekukoak emandako adierazpenetan oinarrituta, egitateak ez ziren ikertu, ez eta ordura arte frogatu ere. Pertsona horien guztien patua eta egonlekua ezezagun mantentzen ziren, eta zortzi pertsona horiek desagertu bezala erregistratuta zeuden.
2. Testigantzak aztertutakoan, informazio sendoa lortu zen egitateei, egitateen eraginari eta geroagoko inguruabarrei buruz. Gainera, senide batzuk atxiloteta kolektiboaren lekuko izan ziren, eta atxilotu batzuen izenak eman zituzten. Senideen 15 testigantza hartu ziren, egitateei, haien bizipenei, eraginei eta eskaerei buruzko informazioa eman zutenak, eta horiez baliatuta burutu zen kasuaren ikerketa. Testigantzek erakutsi zuten pertsona horiek guztiak batera atxilotuak izan zirela leku eta egun horretan, eta senide batzuek entzun ziotela zuzeneko lekukoari haien senide maiteak exekutatuak izan zirela, ordura arte frogatzerik ez bazuten ere.
3. Aba Ali Said Daf zuzeneko lekukoak informazio zuzena eman zion ikertzailerik eta auzitegiko mediku taldeari, eta adierazi zuen Abdalahe Ramdanen eta Mohamed Mulud Mohamed Laminen auzibidetik kanpoko exekuzioaren lekukoa izan zela. Lekukotza hori 2. hobitik hurbil hartu zen, hobia ireki eta aztertu baino egun bat lehenago. 2. hobian auzitegiko ikerketa, ikerketa dokumentala eta genetikoak egindakoan, egiaztatu ahal izan zen erabat lekukoaren kontaketa, bai eraildakoen identitateari dagokionez, bai su-armaz egindako zauriei dagokienez. Era berean, gainerako beduinoen atxilotze kolektiboari buruzko testigantzak, lehenago haien senideek adieraziak, egiaztatu ahal izan ziren 1. hobian aurkitutako gorpuzkien inguruabarrak eta identitateak zehaztu eta gero.



Hobia, eta bertan bi pertsonen gorpuzkiak, ehortzi ziren bezala.

4. Lekukotasun-azterketa oinarritu zen testigantzen barne- eta kanpo-koherentziaren azterketa batean. Alegatutako lekuak, izenak eta egitateak egiaztatu ziren, senide batzuek adierazitako adina eta lehengo erreferentziak kontuan hartuta. Lekukotasun-azterketa guztiz bat dator kasu kolektiboaren azterketarekin, alegatutako biktimen identitateekin eta Amgalako putzutik gertu egin ziren atxiloketen izaera kolektiboarekin, biktimak bertara joan baitziren abereentzako ur bila. Era berean, aurkitutako bi hobiak 1976ko otsaileko egun berekoak direla frogatu da, eta biktimak, egiaz, inguruko beduinoak zirela, ihes egin ez zutenak, beren herrian zeudelako, abereak zaintzeko artzain-lanetan.
5. Hezurkiez eta objektu pertsonalez gain, bi hobietan identitate-agiriak aurkitu ziren. 1. eta 2. hobietan aurkitutako agirien azterketa bat dator biktimen testigantzekin. Hobietan lurperatutako artean, hiru biktimaren agiriak zeuden, geroago genetikoki ere identifikatuak izan zirenak: 1) Mohamed Abdalahe Ramdan (Espainiako NAN, A-4131099 zenbakia). 2) Mulud Mohamed Lamin (Espainiako NAN, A-4520032 zenbakia). 3) Plastifikatutako diru-zorro bat, Espainiako idazpurua zuena, eta barruan azukrea erosteko garaiko errazionamendu-liburuxka bat, Salama Mohamed Ali Sidahmeden izenean, Cubiertas y Tejados enpresaren dokumentu batekin batera.




A-4131099 zenbakiko NAN. Moha. Abadalahe Ramdan

6. Gutxienez bi senidek egindako objektu pertsonalen identifikazioa bat dator bi kasuei buruzko testigantza-frogarekin. Jantzien deskribapena egin zen aurkitu baino lehen, eta geroago bi senidek identifikatu zituzten aipatutako jantziak: Mahmud Salma Dafek bere anaia adingabearen jertse urdina eta bere aitaren arrosario-bihiak identifikatu zituen. Salka Abdalahe Ramdanek bere aitaren arrosario-bihiak identifikatu zituen.



Zulo bereizgarriak, su-armako jaurtigaiak igarotzearen ondoriozkoak.

7. Uraren eta abereen eraginez zati batean irekita zegoen 1. hobian aurkitutako oinetakoak lau gizonezko helduri eta bi haur edo gazteri dagozkie. Datu horiek berresten dute biktimen aurretiazko testigantzak, atxilotze kolektiboari eta biktima motari buruzkoak. Gainera, ebidentzia horiek azterketa antropologiko eta auzitegiko medikuen azterketaren bidez egiaztatu ziren, lau heldu eta bi azpiheldu zirela zehaztu baitzen.



1. hobian berreskuratu diren pelbisak eta sakroak ordenatuta. NMIa sei indibiduori dagokie, eta horietako bi nerabeak dira.

8. Auzitegiko medikuen azterketatik ondorioztatu zen lurperaketak azalekoak izan zirela, eta objektu batzuk oso ondo mantendu direla basamortuan dagoen hezetasunik ezari eta eremuaren ezaugarriek esker. 1. hobian 6 pertsona lurperatu zirela (4 heldu eta bi azpiheldu edo nerabe), eta 2. hobian bi heldu. Heriotzaren kausa indarkeriazkoa izan zela. Su-armak erabili zirela. Lesioak bizitzeko ezinbestekoak diren leku hautatueta daudela, auzibidetik kanpoko exekuzioen berezko ezaugarria dena.



Fusileko bala-zorroak, 7,62 kalibrekoak, 1963. eta 1964. urteetako markaketak dituztenak.

9. Guztiz bat datoz lekukotasun-frogak, eremuaren azterketak eta hobi motak; egindako hezurren azterketa eta probak; nortasun-agiriak eta horien azterketa; hobian aurkitutako objektuak, testigantzekin eta geroagoko identifikazioekin

bat egiten dutenak; eta egindako proba genetikoak, zortzi desagerrarazitakoen identitatea egiaztatzen dutenak.

10. Lan hau egitean zegoen egoera larria izan zen, lekua arriskutsua delako, bertan azpiegitarik ez dagoelako, zonan kontrol militartua dagoelako, edo basamortuaren erdi-erdian jendea bizi den lekuetaraino distantzia handia dagoelako. Hala eta guztiz ere, taldeak aurkikuntzak ikertu eta aztertu zituen nazioarteko estandarren arabera.
11. Auzitegiko laborategian gerora egindako azterlanaren ondorioz, egiaztatu ahal izan ziren heriotzaren kausak, gorpuzkien azterketa eta identifikazio genetiko positiboa. Analsiak egin ziren aurkitutako eskeleto guztiak laborategian izan gabe, ikerketa mota hau oro har egiten denaz bestera, hezurkiak hobitik lekualdatzea ezinezkoa izan zelako. Horrek guztiak erakusten du azterketa sofistikatu horiek baldintza mugatuetan egiteko behar den profesionaltasuna, eta baita dauden zailtasunak ere.



Haustura duen garezurra, su-armako jaurtigaiak igarotzearen ondorioz.

12. 1. hobian aurkitutako gorpuzkiak geroago lurperatu ziren hondarrean egindako zulo batean, sakonera egokian eta mihise zurian bilduak. Lurperatze horretan, tokian zeuden senideek –familia bakoitzeko batek– parte hartu zuten. Senideek identifikazio-hilarri bat egin zuten, hildakoen oroimenez. 2. hobiko gorpuzkiak ukitu gabe utzi ziren; lagin genetikoak hartu eta era egokian lurperatu ziren berriro, senideek parte hartuta. Senideek otoitz egin ahal izan zuten bi hobietan, erlijio islamikoari eta saharar ohiturari jarraituz.



Senideak, 2. hobia itxi baino lehen eta harrizko mugaketa ipini eta gero.

Hona hemen identifikatutako pertsonen izenak:

1. HOBIA	2. HOBIA
Salma Daf Sidi Salec Bachir Salma Daf (adingabea) Sidahmed Segri Yumani Salama Mohamed-Ali Sidahmed Elkarcha Sidi Salec Salma (adingabea) Salma Mohamed Sidahmed	Mohamed Mulud Mohamed Lamin Mohamed Abdalahe Ramdan

13. Senideek prozesu osoan parte hartu zuten, ikerketari ekin zitzaionetik. AFAPRADESA (Preso eta Desagertu sahararren Senideen Elkartea) jarri zen senideekin harremanetan, eta ikertzaile taldeari lagundu zioten bidaian. Prozesuari buruz erabakitzeke orduan ere parte hartu zuten, eta une oro eman zitzaion prozesuan izandako aurrerapenen berri. Senideen zalantza eta galderei erantzun zitzaion, horretarako egindako hainbat bileratan.

14. Senideek, gizonezko zein emakumezkoek, beren testigantza adierazi zuten egitatean gainean, beren bizitzean desagertze bortxatuak izandako eraginaren gainean, eta gorpuzkiak behin betiko berreskuratzeko, hobiak babesteko eta senideak oroitzeko eskaerak aditzera eman ahal izan zituzten, baita egia onartzeko, justizia eta kaltearen konponketa egiteko eskaerak ere. Ikertzaile eta auzitegiko mediku taldeak familia horien adorea nabarmentzen du, euren eskaerak bidezkoak direla aitortzen du, eta kasua behin betiko konpondu arte egin beharreko urratsetan haiei laguntzeko konpromisoa adierazten du.

15. Kasu honetan begien bistakoak eta oso adierazgarriak dira ondorio juridikoak eta giza eskubideen nazioarteko zuzenbidearen arlokoak. Agintari saharar eta espainiarrek ebaluatu egin beharko dituzte, Espainiako NAN duten hiritar sahararrak direlako, eta baita giza eskubideak babesteko Nazio Batuen sistemako organo eta mekanismo eskudunek ere. Halaber, Marokoko agintariek kasuan duten erantzukizuna onartu beharko dute.
16. Hobiak Marokok eraikitako hormatik gertu dagoen zona batean daude, eta bertara iristea arriskutsua eta zaila da. Hobiak babestea eta zonan beste hobi batzuk dauden jakiteko ikerketa Nazio Batuen babespean egin behar da. Ikertzaile taldeak aurretiazko txosten bat egin zuen, 2013ko ekainean aurkikuntza egin eta gero, agintariek MINURSOri horren berri eman ziezaioten, lekua babestearren.
17. Taldeak uste du ezinbestekoa dela senideen eta AFAPREDESaren eskaerari lehenbailehen erantzutea, hau da: gorpuzkiak lurpetik atera, itzuli eta zonan egon daitezkeen beste hobi batzuk aztertzeke misio ofizial bat –MINURSO, CICR, giza eskubideen aldeko nazioarteko GKE eta taldea bera zein aditu independenteak barne– zonara itzuli ahal izatea.
18. Mendebaldeko Sahararen kasua ahaztuta egon da hamarralditan. Desagertutako 400dik gorako sahararren senideak kasuen inguruko ikerketaren zain daude oraindik, eta behin eta berriro eskatu dute ikerketa mota horiek pertsona independenteek eta giza eskubideen urraketei buruzko ikerketan eskarmentua duten taldeek egitea. Hobi komunak egon litezkeen leku asko, salatu egin direnak, ezagunak dira, eta senideek edo bizirik irten direnek seinalatuak. Gehienak Mendebaldeko Saharan daude, Marokoren kontrolpean. Beste batzuk Marokoko lurraldeko toki klandestinoen inguruan. Leku horiek babestu eta ikertu beharko lirakeke nazioarteko estandarren arabera.
19. Egia ezagutzeko eta dolua adierazteko eskubidea da senideen eskaeretako bat, eta azken urteetan gatazkan dauden herrialde askotako esperientziaren osagarria. Halaber, justizia eta kaltearen konponketa beharrezkoak dira, hauen moduko giza eskubideen urratze larrien kasuetan. Kasu honetan egin den lanak erakusten du hori posiblea dela, eta izugarritzko garrantzia duela senideentzat eta, oro har, saharar herriarentzat. Horrez gain, ekarpen bat da, Mendebaldeko Saharan dagoen gatazkaren aurrean giza eskubideen errespetuan oinarrituta dauden irtenbide politikoak bilatzeko.

Lantaldea

Kasuaren koordinazioa eta ikerketa

Carlos Martín Beristain (sendagilea eta doktorea Psikologian), Eloísa González (abokatua) eta Gonzalo Fernández (Hegoako ordezkaria).

Zuzendaritza teknikoa

Francisco Etxeberria (Auzitegiko Medikuntzako irakasle titularra, Euskal Herriko Unibertsitatea).

Deshobiratzea eta landa-azterketa

Lourdes Herrasti (Geografia eta Historian lizentziaduna, Aranzadi Zientzia Elkarte).

Tito Aguirre (Arkeologiako teknikaria, Aranzadi Zientzia Elkarte).

Asier Izaguirre (Arkeologian teknikaria, Aranzadi Zientzia Elkarte).

Sebas Lasa (Arkeologiako teknikaria, Aranzadi Zientzia Elkarte).

Auzitegiko Antropologia eta Patologia

Luis Ríos (Auzitegiko Antropologian aditua, Madrilgo Unibertsitate Autonomoa).

Francisco Etxeberria (Auzitegiko Medikuntzako irakasle titularra, Euskal Herriko Unibertsitatea).

Auzitegiko Genetika

Marian Martínez de Pancorbo (Auzitegiko Genetikan aditua, Euskal Herriko Unibertsitatea).

Sergio Cardoso (Auzitegiko Genetikan aditua, Euskal Herriko Unibertsitatea).

Carolina Núñez (Auzitegiko Genetikan aditua, Euskal Herriko Unibertsitatea).

Miriam Baeta (Auzitegiko Genetikan aditua, Euskal Herriko Unibertsitatea).

Dokumentazioa eta bideoa

Eztizen Miranda (Informazio Zientzietan lizentziaduna, Euskal Herriko Unibertsitatea eta Aranzadi Zientzia Elkarte).

Talde juridikoa

Gabriella Citroni (Zuzenbideko irakaslea, Milango Unibertsitatea).

Alejandro Valencia (Abokatua, Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioan aditua).

Azaleko irudia

Alonso Gil.